

ONARRI ARAUTZAILEAK, EUROPAR BATASUNAK - NEXT GENERATION EU FUNTSEK FINANTZATUTAKO DONOSTIAKO EREMU ENOGASTRONOMIKOKO AISIAREN ETA TURISMOAREN SEKTOREKO ENPRESENTZAT IBILGAILU ELEKTRIKOAK KARGATZEKO GUNEAK EZARTZEKO LAGUNTZA-PROGRAMARENAK

HITZAURREA

Donostiako Udalak eskatu zuen parte hartzea Europar Batasunaren suspertze-tresnaren barneko Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barneko 2. azpineurriaren 1. inbertsioko 14. osagaiaren esparruan tokiko erakundeek inbertsio-jarduketak finantzatzeko, COVID-19aren pandemiak ekarritako krisi ekonomiko, sozial eta humanitarioaren ondoren suspertzen laguntzeko.

Jasota daude, Jarduketak eta Ardatzak atalean, Donostiako Udalak egin beharreko jarduerak, hain zuzen, Donostiako Udalaren dirulaguntza-eskaeran; dirulaguntza emateko Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2022ko abenduaren 19ko Ebazpenean, Turismoko Sektore Konferentziaren 2022ko abenduaren 14ko Erabakia argitaratzen duenean, zeinak Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 14. osagaiko 1. inbertsioaren esparruan tokiko erakundeek inbertsio-jarduketak finantzatzeko kreditua banatzeko irizpideak eta autonomia erkidegoentzako banaketa zehazten baitu; eta EAEko Administrazio Orokorrak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bitartez eta Donostiako Udalak Donostiako Helmugako Jasangarritasun Turistikorako Plana - Donostia, Esperientzia Enogastronomiko Jasangarri eta Berritzailea Plana egikaritzeko egindako itunean.

Digitalizaziorako 3. ardatzaren eta 4. TURISMO GASTRONOMIKOARI LAGUNTZEKO TRANTSIZIO DIGITALA jarduketaren barruan dago "Balio-kateko trakzio-proiektuetarako enpresentzako laguntzak" jarduera.

Hiriaren garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko, bereziki kohesioaren eta jasangarritasunaren irizpideen menpean, apustu egin da airearen kalitatea hobetzeko, deskarbonizaziorako, atmosferarako isurpenak murrizteko, teknologia garbiagoak erabiltzeko eta efizientzia energetikoa sustatzeko, hiriko eragile publikoen eta pribatuen arteko itunen eta elkarlanaren bitartez.

Trantsizio energetikoa sustatzeko neurrietako bat, hiriaren garapen ekonomikoari laguntzeaz gain, oinarritzen da hiriko enogastronomiaren eremuko aisiako eta turismoko enpresetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak jartzea. Neurri horrek lagundu egingo du airearen kalitatea hobetzen eta berotegi-efektuko isurketak murrizten, hiriko aisia turistikoko enpresak murgildu egingo baititu klima-aldaketak dakartzan erronketan.

Aisia turistikoa sektorea estrategikoa da Donostiako enogastronomiaren eremua garatzeko. Hain zuzen, enpleguaren eremuan urtean ehuneko puntu erdia egiten du aurrera, eta hiriko enpleguaren % 8,3 sortzen du gaur egun (Eustaten datuak, 2022ko abenduaren 31koak). Horrekin batera, establezimenduen goranzko joera % 10etik gorakoa da 2014tik. Bi adierazleek erakusten dute tokiko mailan duen garrantzia eta eragina gero eta handiagoa

dela. Sektoreak, beraz, hiriaren BPGd-aren % 5,2 hartzen du, establezimenduen % 7,9 eta, aipatu den moduan, guztizko enpleguaren % 8,3.

Xede horrekin, Donostiako Udalak, Donostia Sustapenarekin batera, Next Generation 2022-2025 proiektua egin zuen, hiriaren eta bertako aisiako eta turismoko enogastronomiaren eremuko enpresak etorkizunean datorkizun disrupzio-egoerara eta hark ekarriko dituen balioetara egokitzea errazteko, eta horren abangoardian egoteko.

Donostiak, baina, ez du nahikoa baliabide pertsonal eta material programa hori garatzeko, eta, hortaz, ebatzi da komeni dela erakunde laguntzaile bat izendatzea, 38/2003 Legearen, azaroaren 17koaren, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren, 12. artikuluari jarraituz. Artikulu horren 2. apartatuak xedatzen duenez, erakunde laguntzailetzat jo ahalko dira osorik edo hein batean administrazio publikoek partaidetutako merkataritza-sozietateak.

Donostia Sustapena sozietateak 2023an apustua indartu zuen kudeaketa-estrategia eta -eredu berri baterantz jotzeko, hirian berrikuntzaren arloko erreferentzia bihurtzeko, Donostian Berrikuntza Agentzia lanak egitean oinarrituta.

Hori apustu bat da, pertsonen, enpresei eta proiektuei lagun egitekoa pertsonalizaziotik, kalitatetik eta foku estrategikotik, eta hori hiriko berrikuntza-ekosistema osatzen duten eragile publiko eta pribatuen arteko elkarlanean egiteko apustu irmotik.

Bilakaera horrek, eta ezarritako helburuak betetzeak aukera eman du berrikuntzaren eta tokiko enpresa-sareari era transbertsealean aplikatutako ekintzailetzaren aldeko apustuaren eremuan, 2022an ostalaritzaren eremuko hainbat ildo jorratzeko, sektoreari aurrean dituen erronken neurriko laguntza emateko helburuarekin.

Hain zuzen, sektoreak Sustapen Planaren esparruan 400 000 euro jaso zituen.

Horrekin batera, sektoreko 140 enpresa izan ziren lehiakortasuna indartzeko zerbitzuen eta/edo laguntzen onuradun, eta, gainera, sektorearekin esparru horretan sortutako jarduerari esker 20 enpresa-proiektu berri sortu ziren, eta 220 lanpostu baino gehiago.

Beraz, Donostia Sustapenak bitarteko ugari eta esperientzia handia du dirulaguntzak eta laguntzak kudeatzeko, baita Europako funtsak kudeatzeko ere. Horregatik, eta oso espezializatuta dagoelako, egokia da erakunde laguntzaile izateko.

Programa hau Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Plana, Donostia, Esperientzia Enogastronomiko Jasangarri eta Berritzailea (2023-2025) proiektuko jardueretan dago jasota, eta Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planen (2022) ezohiko programaren barruan egikaritu zen, esperientzia enogastronomikoa sustatzean oinarrituta, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, Europar Batasunak-Next Generation EUk; Industria eta Turismo Ministerioak; eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak finantzatuta.

36/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren, abenduaren 30ekoaren, premiazko neurriak onesten dituen Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzekoaren, 61.1. artikuluan xedatutakoari jarraituz, zeinak xedatzen duen "Europako funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntzak arautzeko oinarrietan haien deialdiak txertatu ahal" direla, batera onetsiko dira 2024 ekitaldirako laguntza hauen oinarriak eta deialdia.

XEDAPENAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

1.- Arauketa honen xedea da oinarri arautzaileak ezartzea eta deialdia egitea **dirulaguntzen 2024 ekitaldirako, lehiarik gabeko konkurrentziako araubidean, trantsizio berde eta jasangarria errazteko eta hiri-ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko Donostian kokatutako enogastronomiaren eremuko entitateen aisia turistikoko enpresetan efizientzia energetikoko neurriak ezarriz.**

2.- Dirulaguntzat jotako da oinarri hauen 9. artikuluan diruz lagungarritzat jotako inbertsioak eta gastuak egiteko zuzeneko kontraprestaziorik gabeko funts publikoen diruzko xedapena.

3.- Oinarri hauen abaroan emandako dirulaguntzak Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana - **DONOSTIA, AISIAKO ESPERIENTZIA GASTRONOMIKO JASANGARRI ETA BERRITZAILEA** planean daude txertatuta, Turismo Enogastronomikoaren 2022ko Plan Nazionalen, zeina Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan egikaritu baitzen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduari, 2021eko otsailaren 12koari, jarraituz, 14. osagaiko 1. inbertsioko 2. azpineurrian, Europar Batasunaren Next Generation EU funtsek finantzatuta.

Zehazki, Donostiako Udaleko STD Enogastronomikoa, proiektu hau barne hartzen duena, Kontseiluaren Gauzatze Erabakiaren 218. helburuaren barruan sartzen da. Helburu hori Helmugetan Turismo Iraunkortasuneko Planetarako aurrekontua esleitzeari buruzkoa da, eta 220. mugarrietan, Helmugetan Turismo Iraunkortasuneko Planak amaitzeari buruzkoa, eta 221. helburuari buruzkoa.

4.- Laguntza hauen azken hartzaile guztiek, hala jarduera ekonomiko bat egiten duten pertsona fisikoek (autonomoak) nola pertsona juridikoek, dirulaguntza emateko, bete egin beharko dituzte zenbait betekizun eta muga, hain zuzen hemen ezarritakoak: Europako Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua, 2023ko abenduaren 13koa, aplikagarriak izan daitezkeen zuzenbide nazionalen zein EBko xedapenak, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren egikaritze eta kudeaketa eremuan onetsitakoak eragotzi gabe EBaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. Artikuluak enpresei emandako minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoan. Azken hartzaileetako bakoitzari eman dakioken minimis laguntzen zenbatekoa, guztira, ezingo da 300.000 € baino handiagoa izan hiru zerga-ekitaldiko edozein alditan. Horretarako, araubide horiek ukitutakoak jasotako laguntzen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, hiru zerga-ekitalditan, abian den zerga-ekitaldian eta aurreko bi zerga-ekitaldietan dagokion zenbateko-muga betetzeari buruzkoa, dirulaguntza ematen den unetik zenbatuta.

Dirulaguntza emateko ebazpenean onuradunari jakinaraziko zaio zenbatekoa den dirulaguntza gordinaren zenbateko baliokidea, minimis mugaren ondoretarako.

5.- Dirulaguntzen lerro hau jasota dago Donostiako Udalaren eta erakunde instrumental hauen Dirulaguntzen 2024-2026 Plan Estrategikoan: Kiroletako Udal Patronatua, Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa eta Donostiako Sustapena S.A., Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuena 2024ko martxoaren 26an, eta lagundu egiten du dirulaguntza honi dagokion fitxan zehaztutako helburu estrategiko eta espezifikoak betetzen. Honako hauek dira, zehazki:

Helburu estrategikoa: 13. Berrikuntza, ekonomia eta enplegua bultzatzea.

Helburu espezifikoak: Donostian kokatutako aisiako eta turismoko enpresetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneen azpiegiturak ezartzea sustatzea, trantsizio energetikoa errazteko eta hiri-ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko.

2. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZEN ETA PROGRAMA DIRUZ LAGUNGARRIEN XEDEA

1.- Programaren xedea da neurriak bultzatzea Donostian kokatutako enogastronomiaren eremuko aisia turistikoaren sektoreko enpresetako erabiltzaileen mugikortasun jasangarria sustatzeko. Programa sektoreko horretako Donostian kokatutako erakundeetara dago bideratuta, **sektorearen efizientzia energetikoa eta, horrenbestez, hiri-ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko.**

2.- Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak 20 000 eurokoak dira gehienez ere, aisiaren eta turismoaren sektoreko establezimenduetan kargatzeko guneak jartzekoak, eta, oro har, laguntzaren intentsitatea gastu diruz lagungarrien % 70ekoa da, gehi beste % 10 eskaera enpresa txikitzat, mikroETEtzat edo jarduera ekonomiko bat egiten duen pertsona fisikotzat sailkatutako batek egiten badu, oinarri arautzaile hauen 9.2. artikuluko 2. puntuan zehaztutakoari jarraituz.

3.- Onuradunek kargatzeko guneak jarriko dituzten establezimendu bakoitzeko eskaera bat egin ahalko dute. Donostiako Udalak gehienez ere 3 diru-laguntza emango ditu onuradun bakoitzeko.

3. ARTIKULUA. ERAKUNDE LAGUNTZAILEA

1.- 38/2003 Legearen, azaroaren 17koaren, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren, 12.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Donostiako Sustapena udal sozietatea erakunde laguntzailetzat joko da oinarri hauetan jasotako dirulaguntzak kudeatzeko, Donostiako Udalaren eta erakunde horren artean sinatu beharreko lankidetzaz hitzarmenean zehaztu beharreko baldintzetan.

2.- Ondore horietarako, Donostia Sustapena, dirulaguntzen kudeatzaile moduan, «leihatila bakar» moduan arituko da, bai eskaera egiteko bai dagokion dokumentazioa jasotzeko eta izapidetzeko.

4. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

1.- Oinarri hauetan ezarritako dirulaguntzek, oinarriotan, dagokion deialdian eta dirulaguntzak emateko ebazpenean xedatutakoaz gain, honako arau hauei jarraituko diete:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamendua, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.
- 36/2020 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, premia- neurriak onesten dituen Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema antolatzen duena.
- HFP/1031/2021 Agindua, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen duena, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugak eta helburuak betetzearen jarraipena egiteko.
- HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzen duten prozeduretan interes-gatazken arriskuaren azterketa sistematikoari buruzkoa.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onesten duena.
- Turismo Estatu Idazkaritzaren Ebazpena, Dirulaguntza Ematekoa, 2022ko abenduaren 19koa, 2022ko abenduaren 14ko Turismoaren Sektoroko Konferentziaren Erabakia argitaratzen duena, zeinak jarduketak finantzatzeko kreditua banatzeko irizpideak ezartzen baititu, baita autonomia-erkidegoetarako banaketa ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren –Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bidez– eta Donostiako Udalaren arteko hitzarmena, Donostiako Helmugako Jasangarritasun Turistikorako Plana egikaritzeko, Euskadiko Helmugako Jasangarritasun Turistikorako Planari dagokiona.
- •Gobernu Kontseiluaren 2022ko otsailaren 8ko Erabakia, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planari lotutako jarduerak eta proiektuak aurrekontu- eta kontabilitate-betearazteari, kudeatzeari eta horien jarraipena egiteari buruzkoa. Erabaki hori Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpenaren bidez jakinarazi zen (EHAA, zk. 46, 2002ko martxoaren 4koa).
- •Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2022ko martxoaren 29koa, “Iruzuraren aurkako baldintzak, interes-gatazka, finantzaketa bikoitza eta egoerari eta ingurumenari egindako kalte ez-esanguratsuari aurre egiteko laguntza-plana, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen direnak, betetzeko neurrien plana” onartzen duena. Eusko Jaurilaritzaren Idazkaritzaren apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez argitaratu zen 2024. erabaki hori argitaratzea xedatzen duena (2022ko apirilaren 13ko EHAA, 74. zk.).

2.- Halaber, aplikagarriak izango dira Donostiako Udalaren Iruzuraren aurkako Neurrien Plana, Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zuena 2022ko martxoaren 15eko Erabakiz, eta hartatik eratorritako betebeharrak, baita Donostia Sustapenaren Iruzuraren aurkako Neurrien Plana ere, zeina Donostia Sustapena SA sozietatearen Administrazio Kontseiluak onetsi baitzuen 2022ko martxoaren 29an

3.- Orobat, erakunde onuradunek nahitaez aplikatu beharko dituzte dirulaguntza ematen duen administrazioak horretarako ezarritako arau guztiak, baita gainerako estatuko eta

Europako autoritate eskudunek ezarritakoak ere, eta laguntza hauen onuradun izateagatik ezarritako betebeharrak guztiak ere bai, adierazitako finantzaketaren iturria dela eta.

5. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

1.- Oinarri arautzaile hauen abaroan emandako dirulaguntzak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatzeko dira, zeina 2021/241 (EB) Erregelamenduak, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, onetsi baitzuen. Europako funtsez finantza daitezkeen laguntza horiek izapidetzeko eta emateko aplikagarria izango da 36/2020 Legegintzako Errege Dekretuak, abenduaren 30ekoak, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko premiazko neurriak onesten dituenak, xedatutakoa, hargatik gainerako araudi aplikagarria eragotzi gabe.

2.- Ondore horietarako, programa honetara, guztira, BERREHUN MILA EURO (200 000 €) bideratzeko dira, ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak ezartzea finantzatzeko.

3.- Donostiako Udalak eskubidea izango du laguntza-programa honetara bideratutako zenbatekoa aldatzeko, baita finantzatu beharreko eskaeren kopurua ere. Hala eginez gero, behar diren komunikazioak eta iragarkiak egingo ditu, interesdun guztiek jakitea bermatzeko.

4.- Oinarri hauetan eta deialdian araututako laguntzak egikaritzeko funts eskuragarriek bete egingo dituzte etiketatze klimatikoko betebeharrak (073 etiketa, % 100eko ekarpen klimatikokoa. Hiri-garraio garbiko azpiegitura. Hiri-garraio garbiko azpiegitura da zero isurpeneko motordun materiala funtzionatzea ahalbidetzen duena. Azpineurriak ez du etiketatze digitalik.

6. ARTIKULUA. ONURADUNAK

1.- Onuraduna izango da laguntza ematearen oinarri zen jarduera egin behar duen pertsona, edo laguntza ematea legitimatzen duen egoera batean dagoena, baldin eta oinarri hauetan jasotako guzti-guztiak betetzen baditu.

2.- Laguntzen onuradunak izan daitezke jarduera ekonomiko bat garatzen duten pertsona fisikoak (autonomoak) edo juridikoak, pribatuak, estatukoak edo atzerrikoak, baita aurrekoen pertsonalitatearik gabeko elkarteak ere, antolamendu juridikoaren arabera aurretik baliozko moduan eratutakoak, oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzen dituztenak. Kanpoan gelditzen dira ondare sozietateak, 2/2014 Foru Arauan, urtarrilaren 17koan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoaren, 14. artikuluan definitutakoak.

3.- Oinarri hauetan ezarriko dira dagozkion laguntzak eskatzeko beharrezko betekizunak eta horiek egiaztatzeko moduak. Edozein kasutan, Dirulaguntzen Lege Orokorren 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da (aurrerantzean, DLO). Ondorio horietarako, berariaz adierazten da aplikagarria dela.

4.- Hortaz, laguntza ezingo zaie eman honako pertsona fisiko edo juridiko hauei:

a) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituztenei.

- b) Ebazpen irmoz zehapena jaso izana, dirulaguntzak eta/edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin, edo horretarako gaitasungabetzen dituen legezko debekuren bat izatea, sexuagatiko diskriminazioa egiteagatiko zehapenak barne, 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, martxoaren 16koaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duenaren, 23.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Halaber, ezingo dute onuradun izan administrazio- zein zigor-arloan sexuagatiko diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zehapena jaso duten pertsona fisikoak, dagokion zehapenak iraun bitartean. Halaber, ezingo dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso estatuko araudiaren arabera indarrean dagoen berdintasun-plan bat eduki behar eta ez duten enpresek, ezta 50 langile baino gehiago dituzten eta sexu-jazarpena, sexuagatiko jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta haien aurka borrokatzeko neurriak ezarri dituztela frogatzen ez duten enpresek ere, estatuko legediak gizonen eta emakumeen berdintasunaren arloko legedian ezarritako moduan. Laguntza ekonomiko hau eskatzeko interesa duten enpresek adierazpen bat aurkeztu beharko dute emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz, 10. artikuluan zehaztutako dokumentua, hain justu.
- c) Donostiako Udalarekin eta/edo Donostia Sustapenarekin zorrak dituztenei.
- d) Aurretik jasotako laguntzak osorik edo haien zati bat itzuli behar dituztenei, itzuli beharreko zenbatekoa sartu dutela egiaztatu bitartean.

5.- 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 28.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz, interesdunek eskubidea dute ez aurkezteko dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak eta beste edozein administrazio egindakoak. Gainera, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo bildu ahalko ditu, salbu eta interesdunak aurka egiten badu; eta, orduan, ziurtagiriak aurkeztu egin beharko ditu.

6.- Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzako elkarreragingarritasun-aplikazioaren bidez zuzenean eskatuko die administrazio publiko eskudunei honako informazioa, prozedura hau ebazteko eta bertako ordainketetarako:

- Donostiako Udalarekiko eta Donostia Sustapenarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.
- Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren (JEZ) historia.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.

7. ARTIKULUA. DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO ONURADUNEN BETEKIZUNAK

1.- Onuradunek honako betekizun hauek bete beharko dituzte deialdi honetan parte hartzeko:

- a. Pertsona fisikoa edo juridikoa izatea, izaera pribatukoa, eta lan-gunea eta jarduera ekonomikoa Donostiako udal mugartean kokatuta egotea, eta gainera, balio-kate enogastronomikoaren esparruan jardutea.

- b. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean Donostian alta emanda egotea jarduera ekonomikoei buruzko zergan (JEZ), honako epigrafe hauetakoren batean:

JEZ	KONTZEPTUA
1681	HOTEL ETA MOTELETAN OSTATU EMATEA
1682	OSTATU ETA PENTSIOETAN OSTATU EMATEA
1683	OSTATU-ETXEETAN ETA OSTALARI-ETXEETAN OSTATU EMATEA
1684	APARTAHOTELETAN OSTATU EMATEA
1685	HOTELEZ KANPOKO OSTATU TURISTIKOAK
1686	APARTAMENTU PRIBATUEN USTIAPENA
1671	JATETXEA
1672	KAFETEGIAK
1673	KAFE ETA TABERNAK, JANARIDUNAK ZEIN JANARI GABEAK
19892	KONGRESUAK ETA BATZARRAK ANTOLATZEKO ZERBITZUAK
2882	TURISMO GIDAK
2883	TURISMOKO GIDA INTERPRETEAK

2.- Ezingo dira onuradun izan % 25ean baino gehiagoan sektore publikoko entitateen mendea edo haiek partaidetuta dauden entitateak (sektore publikokotzat joko dira hemen jasotako entitateak: 9/2017 Legearen, azaroaren 8koaren, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren, Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 24koak, Espainiako antolamendu juridikora dakartzanaren, 3. artikuluan), ezta hein berean ondare sozietateen eta/edo elkargo profesionalen mendea edo haiek partaidetuta dauden entitateak ere.

3.-Donostia Sustapenak, kudeaketan parte hartzen duen erakunde laguntzailea denez, eskubidea izango du behar beste informazio eta ekarpen eskatzeko, oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzen direla bermatzeko.

8. ARTIKULUA. IBILGAILU ELEKTRIKOAK KARGATZEKO GUNEAK EZARTZEKO BETEKIZUNAK

1.- Dirulaguntza hauek inbertsioak eta gastuak laguntzeko bideratuta daude, zehazki, Donostian kokatutako enogastronomiaren eremuko aisia turistikoko sektoreko enpresek egindako ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak instalatzearenak.

2.- Kargatzeko azpiegiturak espazio pribatuetan egon beharko du, eta establezimenduko bezeroei zerbitzu eman beharko die, Donostiako udal mugartean kokatutako enpresaren instalazioetan bertan.

3.- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalazioak jarraian zehaztutako araudia bete beharko du, baita indarrean dagoen beste edozein araudiren arabera galdagarriak diren betekizunak ere:

- 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa onesten duena (BOE, 2002/09/18).
- 1053/2014 Errege Dekretua, abenduaren 12koa, abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuak onetsitako Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoko BT 52 "Xede bereziko instalazioak. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura" Instrukzio Tekniko Osagarri (ITO) berria onesten duena eta horretarako beste instrukzio tekniko osagarri batzuk aldatzen dituena (BOE, 2014/12/31).
- IET/2388/2015 Agindua, azaroaren 5koa, ibilgailu elektrikoak kargatzeko konektoreen modelo jakin batzuk baimentzen dituena (BOE, 2015/11/12).
- 542/2020 Errege Dekretua, maiatzaren 26koa, Industriako Kalitatearen eta Segurtasunaren alorreko zenbait xedapen aldatzen eta indargabetzen dituena (BOE, 2020/06/20)
- 29/2021 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, mugikortasun elektrikoak sustatzeko energiaren, autokontsumoaren eta energia berriztagarriak ezartzearen eremuko premiazko neurriak hartzen dituena.
- 450/2022 Errege Dekretua, ekainaren 14koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onetsitako Eraikuntzako Kode Teknikoa aldatzen duena.

Justifikatzeko unean beste araudiren bat indarrean badago, eskatzaileak araudi hori bete beharko du, justifikazio-dokumentuak aurkeztean.

4.- Orobat, instalazioak, gutxienez, 2 motako konektorea izan beharko du, IEC 62.196-2aren arabera, edo CCS2- Combo 2 konektorea, IEC 62196aren arabera, bateragarria 3 edo 4 moduarekin, instalazioaren arabera, eta integratutako energia neurtu beharko duena.

5- Kargatzeko guneak egiteko obra zibileko proiektu bat egin behar bada, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Hondakinen kudeaketako azterlanak honako hau jasoko du:
 - Gutxienez eraikuntza-lekuan sortutako eraikuntzako eta eraisketako hondakin ez-arriskutsuen % 70 (pisua) (2000/532/EE Erabakian ezarritako hondakinen Europako Zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala kanpo) berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko dira, baita beste material batzuk ordeztzeko hondakinak erabiliz betelanak egiteko ere, EBko hondakinen hierarkiari eta eraikuntzako eta eraisketako hondakinak kudeatzeko protokoloari jarraituz.
 - Eraikuntzarekin eta eraisketarekin lotutako hondakinen sorrera mugatu beharko da, EBko eraikuntzako eta eraisketako hondakinen kudeaketarako Protokoloari jarraituz, eskuragarri dauden teknika onenak aintzat hartuz eta eraisketa hautakorra erabiliz, substantzia arriskutsuak segurtasunez kentzeko eta manipulatzeko eta kalitate handiko berrerabilera eta birziklatzea errazteko, materialak gaika kenduz, eraikuntzako eta eraisketako hondakinentzako sailkapena erabiliz.
- Prebentzio-neurriak hartuko dira lurra eta ura (baliabide hidrikoak eta itsas

baliabideak) kutsatzea prebenitzeko eta kontrolatzeko, baita obra-fasean zarata, hautsa eta isurketa kutsatzaileak murrizteko neurriak ere.

6.- Gastuak diruz lagungarriak izango dira gutxienez kargatzeko gune bat egiten bada, eta erabilgarri badago gutxienez ere bost urtez, instalazioa legeztatzen denetik zenbatzen hasita.

7.- Ez dira diruz lagungarritzat joko kargatzeko guneak bide publikoan edo aparkaleku publikoetarako erreserbatutako espazioetan jartzea, sareari konektatutako energia berriztagarria ekoizteko unitateak, ezta kontagailu adimendunak ezartzea ere.

8.- Aurkeztutako proiektu honela ebaluatuko dira:

- Memoria teknikoa eta ekonomikoa baloratuko da ("Memoria teknikoa" eranskina); egiaztatu egingo da eskaerak oinarri hauetan ezarritako betekizun tekniko guztiak betetzen dituela. Eskaerak betekizunak betetzen baditu, onartutzat joko da.

9. ARTIKULUA. GASTU DIRUZ LAGUNGARRIAK ETA LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

9.1. Gastu diruz lagungarriak

1.- Gastu diruz lagungarritzat jotzen dira:

- a. Proiektua
- b. Obra edo obra zibila
- c. Ingeniaritzako eta obra-zuzendaritzako gastuak
- d. Kargatzeko azpiegituraren beraren kostua
- e. Edozein elementu elektriko jartzea edo eguneratzea, transformadorea barne
- f. Babesak
- g. Seinaleztapenak
- h. Beharrezko telekomunikazio-instalazioak

2.- Diruz lagundutako gastuen eskuratzeko kostua inola ere ezingo da izan merkatuko balioa baino handiagoa.

3.- Gastu diruz lagungarri moduan onartuko dira, oro har, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerakoak direnak eta oinarri arautzaile hauek ezarritako epean egin direnak.

4.- Gastu diruz lagungarria 40 000 euro baino gehiagokoa denean obragatiko egikaritze-kostuetan, edo 15 000 eurokoa ekipo-ondasunen horniketetan eta aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzuetan, erakunde onuradunak hiru enpresa hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu, eta haien dokumentuzko frogak jasota utzi beharko ditu, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta gastu

diruz lagungarrien ezaugarri bereziak direla-eta ez dagoenean merkatuan horiek hornitzen edo ematen dituzten nahikoa erakunde, edo gastua eskaeraren aurretik egin bada.

5.- Diruz lagundutako gastuei berariaz aplikatuko zaie DLOaren 31. artikulua.

9.2. Laguntza ekonomikoaren zenbatekoa.

1.- Laguntzaren zenbatekoaren gehieneko intentsitatea, oro har, **gastu diruz lagungarrien % 70ekoa izango da, gehi beste % 10 eskaera enpresa txiki edo mikroETE moduan sailkatutako enpresa batek egiten badu, artikulua honen 2. puntuaren deskribatutako moduan.** Hala ere, gehieneko zenbatekoa HOGEI MILA EURO (20 000 €) izango da aurkeztutako eskaerako.

2.- Enpresa txikitzat jotzen ditugu honako betekizun hauek betetzen dituzten enpresak:

a. Pertsona fisiko edo juridikoak badira, enpresa txiki izaera izatea eskaera egiteko unean. Enpresa txikitzat joko da ondorio horietarako 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak, 13. artikuluan jasotako arauketako betekizunak betetzen dituenak.

- I. Ustiapen ekonomiko bat egitea.
- II. Haren aktiboa eta eragiketen bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoko Itun Ekonomikoan definitutako moduan, ez izatea (10) 10 milioi eurotik gorakoa.
- III. Plantilla ez izatea, batez beste, 50 pertsonatik gorakoa.
- IV. Zuzenean edo zeharka ez izatea aurretik aipatutako betekizunen bat betetzen ez duten enpresen % 25eko edo gehiagoko partaidetzarik, salbu eta arrisku-kapitaleko sozietate edo funts bat bada, aplikagarri zaiona aipatutako foru-arauaren IV. kapituluaren ezarritako araubide berezia.

Entitatea sozietate talde baten parte denean Merkataritza Kodearen 42. artikuluen arabera, aipatutako lan taldearen tamaina talde horretako entitate guztienaren batura izango da.

3.- Inola ere ezingo dira diruz lagundu balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.

4.- Ordaindutako zenbatekoa inoiz ez da izango oinarri hauetan ezarritakoaren arabera aurkeztutako eta justifikatutako gastuen edo inbertsioen zenbatekoa baino handiagoa.

5.- Kargatzeko guneen **instalazioak egikaritzeko epea 2023ko irailaren 1etik dirulaguntza justifikatzeko gehieneko data artekoa izango da (2025eko ekainaren 30a).**

6.- Justifikatutako gastu guztiak laguntza justifikatu aurretik ordaindu beharko dira.

7.- Txartelaz, banku-transferentziaz edo helbideratze-ordainagiriz egindako ordainketen agiriak soilik onartuko dira. Ordainagiri horiek egindako eragiketaren informazioa zehaztuta

izan beharko dute (onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa, data eta abar). Ez da bankuko mugimenduen zerrendarik onartuko, ezta BIZUM bidez egindako ordainketarik ere.

8.- Donostiako Udalak kargatzeko gunea instalatzen duen establezimendu bakoitzeko dirulaguntza bat eman ahalko du, oinarri arautzaile hauetako betekizunak betetzen badituzte. Onuradunak laguntza establezimendu bakoitzerako eskatu beharko du.

10. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

1.- Oinarri hauetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira xede berberarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatuk emandakoekin. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren, 2021eko otsailaren 12koaren, 9. artikuluari jarraituz, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatutako inbertsio-proiektuek Batasunaren beste programa eta tresna batzuen laguntza jaso ahalko dute, non eta laguntzak ez duen programa honen dirulaguntzak dagoeneko finantzatzen duen kostu berbera estaltzen. Baldin eta muga horretara heltzen bada, deialdi honetan emandako laguntzari gehiegizko zenbateko hori kenduko zaio.

2.- Onuradun orok eman beharko dio organo emaileari programa diruz lagungarriak finantzatzeko jasotako laguntza guztiei buruzko informazioa, hala Batasunetik nola bestelakoetatik jasotakoena, betiere finantzaketa bikoitza prebenitzearen printzipioari jarraituz. Laguntzak eman edo ukatu izanaren frogagiriak aurkeztu beharko ditu komunikazio horrekin batera.

3.- Oinarri hauetan ezarritako laguntzek errespetatu egingo dituzte Batzordearen 2023/2831 Erregelamenduan (EB), 2023ko abenduaren 13koan, *minimis* laguntzen EBren Funtzionamendu Tratatuaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoan, ezarritako *minimis* arauak.

4.- Oinarri hauetan adierazitakoaren arabera jasotako dirulaguntzaren zenbatekoa inola ere ezingo da izan berak bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzeko modukoa.

11. ARTIKULUA. AURKEZTU BEHARREKO ESKAERAK ETA DOKUMENTAZIOA

1.- Eskaerak aurkezteko epea oinarri hauen iragarkia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen argitaratu eta horren ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) horien laburpena argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta, oinarri hauen 5. artikuluan jasotako baliabide ekonomikoak ahitzean amaituko da (hala bada, Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko da) edo, bestela, deialdia itxitakoan, hau da, **2024ko azaroaren 30ean**.

2.- Eskaerak telematikoki egingo dira, Donostia Sustapenaren webgunean (www.fomentosansebastian.eus).

Edozein informazio edo kontsulta baduzu, deitu 943482800 telefonora, edo idatzi helbide elektroniko honetara: fomentoss@donostia.eus, gai hau jarrita: **“Ibilgailu elektrikoak**

kargatzeko guneetarako laguntzak” Jendearentzako arretaren ordutegia Donostia Sustapenaren webgunean azaltzen dena da.

3.- Onuradunek kargatzeko guneak jarriko dituzten establezimendu bakoitzeko eskaera bat egin ahalko dute.

Laguntzak eskatzeko interesa duten enpresek edo erakundeek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

Dokumentazio administratiboa

- 1) **Eskaera-eranskina. (1. eranskina)**
- 2) Pertsona fisikoa izanez gero, eskatzailearen **NAN**aren kopia.
- 3) Pertsona juridikoa izanez gero, eskatzailearen **IFZ**ren kopia, eta, hala badagokio, ahalduaren NANA eta ordezkaritza-ahalordea.
- 4) **Bankuko datuen eranskina (2. eranskina)**, laguntza eskatu duen pertsonarena, dagokion banku entitateak zigilatua edo banku dokumentu baliokide bat.
- 5) **Irabazi asmorik gabeko elkarrekin eta fundazioek**, gainera, honako dokumentu hau aurkeztu beharko dute.

-Dagokion erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen duen dokumentuaren kopia.

- Entitatearen estatutuen edo araudiaren fotokopia zigilatuak eta sinatuak.

Dokumentazio horrez gain, eskatzaileak interesgarritzat jotako beste edozein aurkeztu ahalko da, bestearen osagarri.

- 6) Auditoretzako eta funtsen erabilera kontrolatzeko inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea eta tratatzea onartzeko adierazpena, 2021/241 (EB) Erregelamenduaren, Europar Batasunaren interes finantzarioak babesteari buruzkoaren, 22.2.d) artikuluan xedatutakoari eta HFP/1030/2021 Aginduaren, irailaren 29koaren, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema antolatzen duenaren, 8. artikuluan ezarritakoari jarraituz (**3. eranskina**).
- 7) Erantzukizunpeko adierazpena, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruko betebeharrak baldinazki guztiak betetzearen konpromisoari buruzkoa. (**4. eranskina**).

Erantzukizunpeko adierazpena, «kalte esanguratsurik ez egitearen» printzipioa errespetatzeari buruzkoa («do not significantly harm –DNSH», Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduaren, 2021eko otsailaren 12koaren, 2. artikuluko 6) apartatuan ezarritako zentzuan.

Estatuko laguntzekiko bateragarritasunaren eta finantzaketa bikoitza prebenitzearen adierazpena.

- 8) Onuradunaren egiazko titulartasunaren identifikazioa. Identifikazio hori egingo da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren, 2015eko

maiatzaren 20koaren, 3. artikuluko 6. puntuak definitzen duen moduan, HFP/1031/2021 Aginduaren, irailaren 29koaren, 10. artikuluko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluari buruz zehazten duenari jarraituz. (**5. eranskina**).

Jarduera ekonomikoak garatzen dituzten erakunde onuradunek, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluko arabera, Zerga Administrazioako Estatu Agentziako enpresaburuen, profesionalen eta atxikitzailen erroldan edo Foru Zerga Administrazioako errolda baliokidean inskribatuta daudela egiaztatuko dute. Errolda horrek laguntza eskatzen den egunean benetan egindako jarduera ekonomikoa jaso beharko du.

Nolanahi ere, instrukzio-organoak eskuma jaso du programako partaideei haien egiazko titulartasunari buruzko informazioa eskatzeko, baldin eta Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak informazio hori ez badu eta hala adierazi badu MINERVA egiaztapen-sistemaren bandera beltzaren bitartez. Informazio hori instrukzio-organoari aurkeztu beharko zaio 5 egun balioduneko epean, informazio-eskaera egiten denetik zenbatzen hasita. Informazio hori ezarritako epean ez aurkeztea nahikoa arrazoi izango da prozeduratik baztertzeko.

- 9) Deialdi honen 4. artikuluko 2. puntuan ezarritako iruzurraren aurkako planak baldintzarik eta erreserbarik gabe onartzearen adierazpena. (**6. eranskina**)
- 10) Administrazioetik kanpoko langileen Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) (**7. eranskina**)
- 11) Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko adierazpena (8. eranskina).
- 12) Atzitzeko berariazko baimena, hauentzako: Batzordea, Iruzuraren aurkako Borrokarako Europako Bulegoa (OLAF), Europako Kontu Auzitegia, Europako Fiskaltza eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 Erregelamendu Finantzarioaren (EB, Euratom), 2018ko uztailaren 18koaren, 129. artikuluan xedatutakoari buruzko eskumenak egikaritzeko estatuko autoritate eskudunak. (**Eskaera-orria**)
- 13) De minimis laguntzen txostena. Honako webgune honetan lortzen da: <https://webpub2.igae.hacienda.gob.es/accesoremoto/frmExecAPP.aspx?code=BDNSCRT&TA=ANO>
- 14) Ingurumenari kalte nabarmenik ez egiteko erantzukizunpeko adierazpena (DNSH printzipioa) (**9. eranskina**)
- 15) Erantzukizunpeko adierazpena, finantzaketa bikoitzik ez duela adierazten duena. (**10. eranskina**)

Dokumentazio teknikoa:

16) Kargatzeko guneak instalatzeko proiektuaren memoria teknikoa

Deskribapen orokorra:

- Establezimendu-motaren deskribapena (jarduera ekonomikoa), kargatzeko gunearen kokapena eta emango zaion erabilera.

Deskribapen teknikoa:

- Elementu nagusien deskribapena
- Kargatze-sistemaren sailkapena (lotua, ohikoa, erdi azkarra, azkarra edo ultra azkarra)
- Kargatzeko guneen kopurua, guneen potentzia elektrikoa
- Konektoreen kopurua eta mota (1. mota, 2. mota (IEC 62.196-2) eta abar).
- Aldi berean karga daitezkeen ibilgailuak
- Kargatzeko gehieneko potentziako ibilgailua kargatzeko gunea islatzea, eta haren balioa 50 kWekoa edo gehiagokoa den.
- Instalazioaren potentzia aurreikusia: kargatzeko guneen gehieneko potentzien batura (kW)
- Konektagarritasunaren ezaugarriak, aplikagarria bada.
- Instalazio elektrikoaren, obra zibilaren, seinaleztapenaren eta abarren deskribapen zehatza.
- Kargatzeko gunearen kokapena (GPS koordinatuak). Proiektuaren planoa edo krokisa erantsi beste dokumentu erantsi batean.

Aurrekontu xehaketa. Proiektuaren memoria ekonomikoa (ikus “Memoria finantzarioa” eranskina): Laguntzaren xede diren gastuen memoria finantzarioa, Excel formatuan: “Memoria finantzarioa” eranskina.

Aurreko apartatuetan aipatutako dokumentaziorako, eskaerarekin batera dagozkion eranskinak emango dira. Halaber, eranskin guztiak oso-osorik bete beharko dira. Sinadura behar duten aurkeztu beharreko dokumentuak digitalki sinatuta egongo dira.

4.- Onuradunak egindako erantzukizunpeko adierazpen guztiak eta aurkeztutako dokumentazio guztia egiazkoak izatearen erantzukizun osoa hartzen du..

5.- Donostia Sustapenak oinarri hauek betetzen direla bermatzeko behar beste informazio eskatu ahaliko du.

6.- Dokumentuak aurkezteko epeak betetzen ez badira, edo oinarri hauetan ezarritako beste edozein betekizun bete ezean, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da.

12. ARTIKULUA. ESKAEREN AKATSAK ZUZENTZEA

1.- Baldin eta, dokumentazio guztia egiaztatutakoan, egiaztatzen bada eskaera ez dela oso-osorik bete, edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari eskatuko zaio falta dena aurkezteko edo behar diren dokumentuak emateko, HAMAR (10) egun balioduneko epean, eta adieraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela eta prozedura bertan behera utziko dela 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoari jarraituz emango den ebazpenaren ondoren.

2.- Zuzenketetarako eskatutako dokumentazioa telematikoki aurkeztuko da. Ez dira onartuko mezu elektronikoz aurkeztutako justifikazioak, salbu eta instrukzio-organoak berariaz baimentzen badu.

3.- Dirulaguntza eskatzeko unean eta ordainketak jasotzekoan Udal Bilketako eta Foru Ogasuneko eta/edo Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean ez izanez gero, onuradunek egiaztatu beharko da egunean jarri direla, jakinarazi eta HAMAR (10) egun balioduneko epean.

4.- Instrukzio-organoak azalpenak eskatu ahalko ditu, komeni dela irizten badio.

13. ARTIKULUA. INSTRUKZIORAKO ETA EBAZPENERAKO ORGANO ESKUDUNAK

1.- Donostia Sustapena izango da laguntza hauen instrukzio-organoa, Donostiako Udalaren erakunde laguntzailea denez.

Instrukzio-organoak egokitzen jotako jarduketak guztiak egingo ditu eskaera diruz lagungarrien betekizun administratiboak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeke, baita eskaerak balioesteko ere.

2.- Europako funtsak dituzten dirulaguntzen berezitasuna dela eta, oinarri arautzaile hauek lehiarik gabeko konkurrentziako dirulaguntzen moduan izapidetuko dira, 36/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren, abenduaren 30ekoaren, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko premiazko neurriak onesten dituenaren, 62. artikuluan ezarritako moduan, onartu egin zen jarduketak finantzatzea beste proposamen batzuekin alderatuz balioetsi beharrik gabe eta laguntzak emateko ebazpenak ematea eskaerak aurkezteko hurrenkerari jarraituz, egoera edo jarduketa diruz lagungarriaren konkurrentziako egiaztapenak egin eta eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, harik eta deialdian ezarritako aurrekontuaren kreditua ahitzen edo **2024ko azaroaren 30ean deialdia ixten den arte**.

4.- Organo eskudunak dagokion ebazpena emango du, gehienez ere 6 hilabeteko epean, deialdiaren laburpena GAO-n argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Gehieneko epea igaro bada eta berariazko ebazpenik eman ez bada, onuradunek ulertu ahalko dute eskaera ezetsi egin dela.

Laguntza emateko edo ukatzeko, Tokiko Gobernu Batzarrak berariazko ebazpen arrazoitua eman beharko du, baina Ekonomiko eta Enpleguko ordezkariari eskuordetu ahalko dio.

Eman edo ukatu izana banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei, 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 41. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

5.- Onuradunak hautatzeko prozeduraren instrukzioan eta baldintzak betetzen direla egiaztatzen parte hartzen dutenek eta ebazpenerako organo eskudunekoek interes-gatazkarik ezaren adierazpen (IGEA) adierazpena sinatu beharko dute, eta horiek kontrastatu egingo dira, HFP/55/2023 Aginduan, urtarrilaren 24koan, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzen duten prozeduretan interes-gatazken arriskuaren azterketa sistematikoari buruzkoan, ezarritako moduan.

14. ARTIKULUA. AZPIKONTRATAZIOA

1.- Gastu diruz lagungarria 40 000 euro baino gehiagokoa denean obragatiko egikaritze-kostuetan, edo 15 000 eurokoa ekipo-ondasunen horniketetan eta aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzuetan, erakunde edo pertsona onuradunak hiru enpresa hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu, eta haien dokumentuzko frogak jasota utzi beharko ditu, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta gastu diruz lagungarrien ezaugarri bereziak direla-eta ez dagoenean merkatuan horiek hornitzen edo ematen dituzten nahikoa erakunde, edo gastua eskaeraren aurretik egin bada.

Onuradunak diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100 azpikontratatu ahalko du hirugarrenekin.

2.- Pertsona edo erakunde onuradunarentzat ezarritako betebeharrak guzti-guztiak bete beharko dituzte egikaritzen parte hartzen duten azpikontratista guztiek ere.

15. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

1.- Laguntzen onuradunek justifikatu egin beharko dute laguntzaren xede den jarduketaren egin, fakturatu eta ordaindu dutela, **SEI (6) hilabeteko epean, laguntza emateko ebazpena jakinarazpen denetik zenbatzen hasita, eta, edozein kasutan ere, 2025eko ekainaren 30a baino lehen.**

Oinarri hauetan ezarritako epeak edo edozein betekizun eta baldintza betetzen ez bada, ulertuko da laguntza ezetsi egin dela, eta horretarako ebazpena emango da.

2.- Instrukzio-organoak ofizioz egingo ditu dirulaguntza oinarri arautzaile hauetan ezarritako xederako edo helburuetarako erabili dela egiaztatzeko beharrezkotzat jotako ekintza oro.

3.- Gastu diruz lagungarri moduan onartuko dira, oro har, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerakoak direnak eta oinarri hauetan ezarritako epean egin direnak. (9. eta 15. artikulua)

4.- Ordaindutako laguntza ezingo da inoiz izan ematean onetsitako zenbatekoa baino handiagoa.

5.- Laguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, dokumentazio hau aurkeztu ondoren:

Justifikatzeko dokumentazioa:

1) Justifikaziorako eranskina.

2) De minimis laguntzen txostena. Honako webgune honetan lortzen da:
<https://webpub2.igae.hacienda.gob.es/accesoremoto/frmExecAPP.aspx?code=BDNSCRT&TA=ANO>

3) Eranskina: “Azken memoria”: programaren bidez abiarazitako proiektuaren edo jardueraren garapena deskribatzen duena eta egiaz egindako lanaren emaitzak jasotzen dituen:

- a. Emandako dirulaguntzaren esparruan egindako jarduerak:
 - i. Diseinuaren memoria teknikoa eta buletina, proiekturik behar ez duten instalazioetan. ($P < 10$ kW kanpoan eta $P < 50$ kW barruan).
 - ii. Proiektua, obra-zuzendaritzaren ziurtagiria eta buletina, proiektua behar duten instalazioetan. ($P > 10$ kW kanpoan eta $P > 50$ kW barruan).
- b. Gastu diruz lagunduen xede den instalazioa egikarituta eta abian dela erakusteko froga irmoa:
 - i. Kargatzeko gunea elikatzen duen koadro elektrikoaren argazkia.
 - ii. Instalaturako kargatzeko gunearen argazkia, logoak ikusteko moduan.
 - iii. Autoa kargatzen ari dela ikusten den 10 segundoko bideoa deskargatzeko esteka.

4) Eranskina: Instalazioa legezkotzea. Industriako ordezkaritzan erantzukizunpeko adierazpena izapidetu izanaren egiaztagiria.

5) Eranskina: Hondakinen kudeaketako ziurtagiriak. Obra zibila behar bada, eraikuntzako eta eraisketako hondakinen kudeaketako egiaztagiria aurkeztu beharko dira, 112/2012 Dekretuari, ekainaren 26koari, Eraikuntzako eta Eraisketako Hondakinen Ekoizpena eta Kudeaketa arautzen dituenari, jarraituz, eta bertan justifikatuta egon beharko du 3. artikuluan adierazitako hondakinen kudeaketari buruzko helburuak betetzen direla.

Profesional tituludun batek sinatutako obra-proiektua behar duten instalazioetarako:

- Hondakinen kudeaketako azterlana (obra zibilaren proiektu-fasea)
- Hondakinen kudeaketako plana (obra zibilaren-fasea)
- Hondakinen kudeaketako ziurtagiria (obra zibilarena), kudeatzaile baimendu batek emana.
- Obra zibilaren hondakinen balorizazioaren ziurtagiria (kantitatea eta tratamendua).

6) “Memoria ekonomikoa”/ “Memoria finantzarioa” eranskina, laguntzaren kostua justifikatzekoa, Excel formatuan

Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua identifikatuta, zenbatekoa, igortze-data eta, hala badagokio, ordainketa-data jasota, eta gastuen justifikazio-agiri guztiak jasoko dira, xehakatuta edo, bestela,

balio juridikoa duen beste edozein dokumentu, laguntzaren xedea bete dela egiaztatzen duena.

- 7) Dirulaguntzaren xedearen **fakturak**. Fakturak zehatzak izan beharko dute, eta laguntzaren azken onuradunaren izenean igorritakoak, laguntzaren xede diren kontzeptuak identifikatu ahal izateko. Pertsona edo erakunde onuradunak erreferentzia egin beharko dio Next Generation Europako funtsen finantzaketari, fakturaren kontzeptuaren hasieran, honela: "Europar Batasunak – Next Generation EUk finantzatua".

Dirulaguntzaren xede diren zerbitzu edo produktu kontratatuen fakturak, 100 eurotik gorako gastuenak, zergak kanpo.

8) Egindako ordainketen banku-ordainagiria

Zalantzarik gabe ordainketa aurkeztutako fakturari dagokiola jakiteko moduko ordainagiri guztiak onartuko dira. Baliozkotzat joko dira honako hauek identifikatzeko aukera ematen duten ordainagiri guztiak:

- Ordainketa dirulaguntzaren onuradunak egin du.
- Ordaindutako zenbatekoak jasotzen dituen hirugarrena.
- Ordainketa-data.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da. Ez da onartuko mezu elektronikoz aurkeztutako justifikaziorik. Halaber, eranskin guztiak oso-osorik bete beharko dira eta elektronikoki sinatu beharko dira, hala eskatuz gero.

Egindako gastua justifikatzeko dokumentazio osagarria eskatu ahalko da, baita estatuko edo Europako araudiaren arabera Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan galagarriak diren beste edozein justifikazio-agiri edo txosten ere.

Behin dokumentazio guztia aztertutakoan, egiaztatuz gero egiaz jasotako zerbitzuak osorik edo hein batean ez datozela bat onartutako jarduketekin edo justifikatutako gastuen kontzeptuekin, soilik ordainduko da justifikatutako jarduketei dagozkien zati proportzionala.

16. ARTIKULUA. JARRAIPENA, KONTROLA ETA EBALUAZIOA

1- Onuradunek administrazio emaileak egindako egiaztapen-jarduketa ororen mende egon beharko dute, eta, hala badagokio, Kontu Hartzailatza Nagusiari dagozkion kontrol finantzariokoen mende ere bai, baita Kontu Auzitegiaren legedian ezarritakoen, Europako Erkidegoen Kontu Batzordeak eta Auzitegiak, Iruzzurren aurkako Borrokarako Europako Bulegoak, Auditoretza Bulego Nazionalak eta, hala badagokio, Europako Fiskaltzak egindakoen mende ere. Horretarako, diru-laguntzari buruz eskatutako informazio guztia emango zaie organo horiei, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- Edozein kasutan ere, oinarri hauetan araututako dirulaguntzak Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planerako ezarritako jarraipenaren, kontrolaren eta ebaluazioaren mende egongo dira, eta barne-araudiak eta Europar Batasunekoak EBren Suspertze eta

Erresilientzia Mekanismoarako ezarritako informazioari eta publizitateari, kontrolari, egiaztapenari, jarraipenari eta ebaluazioari buruzko betebeharrak espezifikatuak eta gainerakoak izango ditu, nahitaez aplikatu beharrekoak.

3.- Zehazki, administrazio emaileek datuen kategoria harmonizatuak jasoko dituzte, formatu elektronikoan, Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak egiteko neurrietarako funtsen erabileraren auditoretza eta kontrola egiteko, 2021/241 Erregelamenduaren (EB), 2021eko otsailaren 12koaren, 22.2.d) artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

4.- Onuradunek finantzarioari dagozkion justifikazio-agiriak eta gainerako dokumentazioa gorde beharko dute, formatu elektronikoan, saldoa ordaindu eta bost urtean, edo, ordainketa egin ezean, eragiketa gertatzen denetik zenbatzen hasita, edo hiru urtean, dirulaguntzaren zenbatekoa 60 000 euro baino gutxiagokoa denean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/10146 (EB, Euratom) Erregelamenduaren, uztailaren 18koaren, («Erregelamendu finantzarioa») 132. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Kontu-ikuskapenei, errekursoei, auziei, konpromiso juridikoei edo OLAFen ikerketei buruzko erreklamazioen izapideei buruzko erregistroak eta dokumentuak gorde egingo dira auditoretza, errekurso, auzi, erreklamazioen izapidetze edo ikerketa horiek amaitu arte. OLAFen ikerketei buruzko erregistroen eta dokumentuen kasuan, erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra ikerketa horiek hartzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da.

Erregistroak eta dokumentuak gorde egingo dira, bai jatorrizkoak, bai jatorrizkoen kopia konpultsatutak, bai eskuarki onartzen diren datu-euskarriak; besteak beste, jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan bakarrik dauden dokumentuak. Bertsio elektronikoak daudenean, ez da jatorrizkorik beharko, baldin eta dokumentu horiek auditoretzaren ondorioetarako jatorrizkoen baliokidetzat eta fidagarritzat jo ahal izateko legezko baldintza aplikagarriak betetzen badituzte.

17. ARTIKULUA. EZ BETETZEAGATIK AMAITZEA EDO BEHARTUTA AMAITZEA. ITZULKETA ETA ZEHAPEN-ARAU BIDEA

1.- Bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak itzuli beharra eta dirulaguntza ordaintzen denetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen dena arteko berandutze-interesa eskatzea 38/2003 Legean, Dirulaguntzen Lege Orokorrean, eta hura garatzeko erregelamenduan edo oinarri hauetan ezarritako jaso espezifikoren batean ezarritako inguruabarren bat gertatzen denean.

2.- Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko dira, eta, beraz, premiamendu-bidetik eskatu ahalok dira itzulketa ez bada zehaztutako epeetan egiten.

3.- Onuradunak jasotako ekarpenaren zenbateko guztiak itzuli beharko ditu oinarri hauetan zehaztutako betebeharrak ez-betetzea larria eta/edo errepikatua bada. Adibidez, baina ez honetara mugatuta, ez-betetze larritzat eta/edo errepikatutzat joko da aurkeztutako dokumentazio ofiziala faltsutzea, hirugarrenen eskubideak kopiatzea, plagiatzea edo urratzea proiektua aurkeztean eta abar.

4.- Horrez gain, itzulketarako kausa izango da DNSH printzipioa eta etiketatze klimatikotik eratorritako betebeharrak urratzea (073 etiketa, % 100eko ekarpen klimatikokoa: Hiri-garraio garbiko azpiegitura. Hiri-garraio garbiko azpiegitura da zero isurpeneko motordun materiala funtzionatzea ahalbidetzen duena).

5.- Itzulketa-prozedura 38/2003 Legearen, azaroaren 17koaren, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren, 41. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera egingo da.

Itzulketa agintzeko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da, baina Ekonomiko eta Enpleguko zinegotzi ordezkariari eskuordetu ahaliko dio.

6.- Horrez gain, aipatutako itzulketa-kausaren bat badago eskubidea galduko du, hala badagokio, ordaintzeko dauden zenbatekoak kobratzeko. Halaber, eskatzailea ezingo da berriz programan aurkeztu.

7.- Arau-hausteen eta zehapenen arloan, 38/2003 Legearen, azaroaren 17koaren, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren, 56. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio. Zehapenak ezartzeko erabakiek administrazio-bidea amaituko dute.

18. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1.- Onuradunek beren gain hartuko dituzte DLOaren 14. artikuluan jasotako betebeharrak orokorrak. Ondorio horietarako, legea aplikagarria da berariaz, eta honako betebeharrak aipatzen dira (zerrendakoak adibideak dira eta ez dira horietara mugatzen):

- a) Laguntza diruz lagundutako jardueretara bideratzea.
- b) Diruz lagundu beharreko gastuak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztea, ezarritako moduan eta epean.
- c) Jasotako laguntzak aplikatzearen justifikazio dokumentuak gordetzea, egiaztapen eta/edo ikuskaritza jarduketetarako, aplikagarria den araudian ezarritako epean.
- d) Laguntzaren jardueretako gastu eta diru sarrera guztiak kontabilizatzea.
- e) Kontabilitate-liburuak ondo eramatea, horretara behartuta egonez gero.
- f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea.
- g) Laguntzaren xede den jarduera egiteko beharrezko lizentzia eta baimen guztiak izatea.
- h) Ibilgailu elektronikoak kargatzeko azpiegitura instalatzeko indarrean dagoen legediko araudia betetzea.
- i) Donostia Sustapenari jakinaraztea laguntzak emateko kontuan hartutako edozein egoera subjektibo edo objektibo aldatu dela, gehienez ere hori gertatu eta 15 egun naturaleko epean.

- l) Donostia Sustapenari eskatutako informazio guztia ematea, emandako laguntzen inguruko bere funtzioak betetzen dituenean.
- k) Donostia Sustapenari jakinaraztea beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideren bat jaso bada helburu bererako.
- l) Hala badagokio, Donostia Sustapenarekin elkarlanean aritzea, egin ditzakeen kontrol finantzarioko jarduketetan eta egiaztapenetan, eta haren esku jartzea eskatutako informazio eta dokumentazio guztia.
- m) Oinarri hauetako 6. ,7. eta 8. artikuluetan jasotako baldintzak betetzea.
- n) Donostia Sustapenari baimena ematea bere enpresen eta I+G+b eragileen direktorio digitaletan argitaratzeko onuradunak trafiko ekonomikoan erabilitako harremanetarako datuak, jarduera, izen komertziala, logoa, marka eta beste edozein zeinu bereizgarri. Horretarako, onuradunak Donostia Sustapenari erabilera eta ustiapen lizentzia eskusiboa emango die, elementu horien soilik ingurukoa, adierazitako helburuetara mugatua, eta bermatuko du hark modu baketsuan erabiltzen duela. Hortaz, berariaz baimendu beharko da oinarri hauetan ezarritakoez besteko edozein erabilera.
- o) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (lehentasuna euskarari emanez) komunikazio-euskarrietan (webgunean, sare sozialetan, mezu elektronikoetan, megafonian, seinaleetan eta abarreetan), sustapen- eta zabalkunde-materialen edizioan, antolatutako jardunaldien eta ekitaldien hizkuntzetan eta abarretan.

Onuradunak aholkularitza eskatu ahal izango diote Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari, testuak itzultzeko eta horiek zuzentzeko (1.000 karaktere hilean, gehienez ere, eta 9.000 karaktereko itzulpenak), baldin eta zerbitzuaren betekizunak eta ezaugarriak betetzen badira.
(<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/eu>)

- p) Material, euskarri eta espazio guztietan txertatzea Donostiako Udalaren, Donostia Sustapenaren eta Next Generation EUko erakunde finantzatzaileen erreferentziak eta logoak, HFP/1030/2021 Agindua 9. artikulua arabera. Eskaera onartzean, Donostia Sustapenak onuradunari adieraziko dizkio ezarri beharreko nahitaezko erreferentziak, tamaina, lekua eta abar zehaztuta. Honako erreferentzia hauek ezarri beharko dira nahitaez:

Jarduketa hau "Donostia, esperientzia enogastronomiko jasagarri eta berritzailea" "Helmugako Jasagarritasun Turistikoaren Plana - Enogastornomiako Plan Nazionala" proiektuaren barruan dago, zeina Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan egiten den, Europar Batasuneko Next GenerationEU funtsek finantzatuta.

q) Araudi aplikagarri oro errespetatzea, eta, bereziki, 1/2023 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duena, zeinak, besteak beste pertsonen sexuan oinarritutako zuzeneko zein zeharkako diskriminazio oro debekatzen baitu.

r) Diruz lagundutako jarduerak sortutako komunikazio oro hizkera inklusiboaz egitea, eta erabiltzen diren irudietan emakumeen eta gizonen irudi orekatua eta estereotipatu gabea bermatzea.

2.- Gainera, erakunde onuradunek Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketaren inguruko betebeharrak bete beharko dituzte hala Europakoak nola nazionalak Horretarako, honi jarraitu beharko zaio:

a) Diruz lagundutako jarduketak diseinatzean eta egikaritzean, erakunde onuradunek bermatu egin beharko dute “kalte esanguratsurik ez egitearen” printzipioa (edo, ingelesezko siglen arabera, “DNSH”, Do Not Significantly Harm) errespetatzen dela, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduan, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenean; eta hura garatzeko araudian ezarritakoari jarraituz, bereziki, Batzordearen Komunikazioan, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren Erregelamenduaren arabera «kalte esanguratsurik ez egitearen» printzipioaren aplikazioari buruzko gida teknikoan, eta Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onesteko Kontseiluaren Egikaritze Erabakian eskatutakoan. Laguntzaren xede diren proiektu guztiek, diseinu-, egikaritze- eta justifikazio-faseetan, eta jarduketa bakoitzerako, ingurumenari kalte esanguratsurik ez egitearen printzipioa errespetatu beharko dute (DNSH printzipioa, ingelesezko siglengatik, «Do Not Significantly Harm»), baita etiketatze klimatikoaren baldintzak ere (073 etiketa, % 100eko ekarpen klimatikokoa: Hiri-garraio garbiko azpiegitura).

b) Espainiako eta Europar Batasuneko instituzioen kontrol-jarduketan mende egongo dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren, otsailaren 12koaren, 22.2.e) artikuluari jarraituz.

c) Dirulaguntza honen esparruan egindako jarduketan auditoretza-arrasto egokia mantendu beharko da, eta ezinbestean mantendu beharko da euskarri-dokumentazioa, legez hala ezarritako epean.

Informazioa Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak ezarritako moduan egingo da, estatuko eta Europar Batasuneko araudiari jarraituz.

d) Dokumentuak formatu elektronikoan mantentzea saldoa ordaindu eta bost urtean, edo, ordainketa egin ezean, eragiketa gertatzen denetik zenbatzen hasita, edo hiru urtean, dirulaguntzaren zenbatekoa 60 000 euro baino gutxiagokoa denean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/10146 (EB, Euratom) Erregelamenduaren, uztailaren 18koaren, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko arau finantzarioei buruzkoaren, 132. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

- e) HFP/1030/2021 Aginduan, irailaren 29koan, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema antolatzen duenean, xedatutakoari jarraituz, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik datozen funtsen azken onuradunek, eta, hala badagokio, azpikontratistek, Europako eta estatuko araudi aplikagarria bete beharko dute, eta, zehazki, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren Erregelamendutik eratorritako betebeharrak bete beharko dituzte, bereziki etiketa digital eta berdeei; kalte esanguratsurik ez egitearen printzipioari; interes-gatazkak, iruzurra eta ustelkeria saihesteari; finantzaketa bikoitzik ez izateari; estatuko laguntzen araudia betetzeari, komunikazioei, datuen transferentziei eta abarri dagozkienak. Halaber, eskaerekin batera erantzukizunpeko adierazpenak aurkeztuko dira, «Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren jarduketak egikaritzeko konpromiso-adierazpena» eta «Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren jarduketak egikaritzeari lotuta datuak lagatzeko eta tratatzeko adierazpena». Baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.f) artikulua ere.
- f) Diruz lagundutako ondasunaren titulartasuna izatea eta dirulaguntza emateko xederako erabiltzea.
- g) Kontu-ikuskapenei, errekursoei, auziei eta konpromiso juridikoei edo OLAFen ikerketei buruzko erreklamazioen izapideei buruzko erregistroak eta dokumentuak gorde egingo dira auditoretza, errekurso, auzi, erreklamazioen izapidetze edo ikerketa horiek amaitu arte. OLAFen ikerketei buruzko erregistroen eta dokumentuen kasuan, erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra ikerketa horiek hartzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da.
- Erregistroak eta dokumentuak gorde egingo dira, bai jatorrizkoak, bai jatorrizkoen kopia konpultsatuak, bai eskuarki onartzen diren datu-euskarriak; besteak beste, jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan bakarrik dauden dokumentuak. Bertsio elektronikoak daudenean, ez da jatorrizkorik beharko, baldin eta dokumentu horiek auditoretzaren ondorioetarako jatorrizkoen baliokidetzat eta fidagarritzat jo ahal izateko legezko baldintza aplikagarriak betetzen badituzte.
- h) Interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik ez dagoela bermatzea, bai eta diru-laguntza eman duen administrazioak onartutako iruzurraren aurkako Neurrien Plana baldintzarik gabe eta inolako zalantzarik gabe onartzea ere. Plan horren xedapenak bete-betean betearaziko dira, Erkidegoko, Estatuko eta Europako araudia erabat errespetatuz, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, detektatzeari eta zuzentzeari dagokionez, bai eta Europar Batasunaren interesei buruzko erabakiei jarraiki ere.
- i) Onuradunak Administrazioari jakinarazi beharko dio helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk lortu dituela, kostu beraren gainean finantzaketa bikoitzik egin gabe, beste edozein administrazio edo erakunde publikok, estatukoak zein nazioartekoak.
- j) Bermatzea erakundeak badakiela laguntza horren finantzaketa Europar Batasuneko MRRtik datorrela, eta, beraz, bere gain hartzen dituela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendutik (MRR ezartzen duena) eratorritako betebeharrak guztiak, bai eta finantzaketa horri aplika dakizkiokeen Erkidegoko edo estatuko gainerako arauak ere. Egoera hori erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko da.
- k) Berariaz baimentzea Batzordeari, OLAFi, Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan 1. paragrafoan aitortzen zaizkien eskubideak egikaritzeko, eta ordaindutako funtsen azken hartzaile

guztiak behartzea Auzitegia berreskuratzeko eta erresilientziarako planean sartutako inbertsio-proiektu eta erreformak aplikatzeko neurrietarako, edo Auzitegia berariaz eskuhartzen duten gainerako pertsona edo erakunde guztiak. Eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari, Finantza Erregelamenduko 129. artikuluko 1. paragrafoan aitortzen zaizkion eskubideak baliatzeko eta funtsen azken hartzaile guztiei antzeko betebeharrak ezartzeko.

- l) Beren identifikazio-datuak datu-base batean sartzea, Legebiltzarraren 2021/241 (EB) Erregelamenduko 22.2.d) artikuluan adierazitakoaren arabera.
- m) Diruz lagundutako jardueren fidagarritasunaren eta jarraipenaren ardura izatea, jarduketa bakoitzaren lortze-maila une oro jakin ahal izateko. Hirugarrenek egin beharreko jardueren kasuan, aurreikusitako jarduerak lortzen lagunduko duten mekanismoak ezartzea, eta hirugarren horiek Berreskuratze Planeko adierazleen, mugarrien eta helburu egokien balioa zehazteko beharrezkoa den informazioa ematea.
- n) Esku hartzen duten Administrazio Publikoen arteko datu-lagapena onartzea, aplikatzekoa den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluen arabera, funtsen azken hartzailearen identifikazioa arautzen duen 1031. artikuluen arabera. Eta hori guztia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluen garapen gisa.

19. ARTIKULUA. KOFINANTZAKETA

1.- Laguntza ekonomiko hauek kofinantzatu egingo dira, Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana - DONOSTIA, ESPERIENTZIA ENOGASTRONOMIKO JASANGARRI ETA BERRITZAILEA planaren jardueren barruan. Jarduketa horiek “Donostia, esperientzia enogastromikoko jasangarri eta berritzailea” “Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana - Turismo Enogastromikokoaren Plan Nazionala 2022” proiektuaren barruan daude, zeina Sustaperte, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan egikaritzen den, Europar Batasunaren Next Generation EU funtsek finantzatuta.

20. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

1. Datuak babesteko indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraituz, oinarri hauetan araututako laguntzen eskatzaileei jakinarazten tratatzeko datu base batean jasoko direla laguntzak tramitatzean eta/edo horiek eman ondoren kudeatzean dagokion eskaera orriaren eta aurkeztutako dokumentazio guztiaren bidez emandako datu pertsonalak. Donostiako Udala izango da tratamenduaren arduraduna, eta Donostia Sustapenak kudeatuko ditu, tratamenduaren arduraduna izango baita. Tratamenduaren helburua da aipatutako laguntzen eskaerak eta tramitazioa kudeatzea.

2.- Tratamenduaren legezkotasunaren oinarria da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduaren, 2016ko apirilaren 27koaren, pertsona fisikoak beren datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokienez babesteari buruzkoaren, (DPEO) 6.1.e) artikulua: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiliz ezarritako helburu bat betetzeko: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriari buruzkoa; eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.

3.- Oinarri hauetan edo dagozkion eskaera inprimakietan hala adierazten denean, nahitaezkoa izango da eskatutako datu pertsonalei buruzko informazioa ematea, eta ematen ez bada, edo datu okerrak ematen badira, eskaera ezingo da kudeatu.

4.- Datuak gorde egingo dira jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizun posibleak zehazteko beharrezko aldi guztian.

5.- Oinarri hauetan araututako laguntzetako onuradunek emandako datu pertsonalak estatuko edo estatuaz gaindiko entitateei laga ahalko zaizkie, hala badagokio, laguntzak kofinantzatzen badituzte eta/edo Donostia Sustapenarekin elkarlanean aritzen badira haiek kudeatzen, beharrezkoa izanez gero, eta laguntzak ematea kudeatzeko soilik.

6.- Halaber, laguntzak emanez gero, onuradunaren identifikazio datuak eta emandako laguntzaren zenbatekoa komunikatu edo laga egingo dira, Donostia Sustapenaren webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko baitira.

7.- Ukitutako pertsonak datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezabatzeke eta datuak babesteko araudiak jasotako beste eskubideak erabili ahal izango dituzte, bidezkoa bada, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuan, helbide honetan: Easo kalea 41, 20006, Donostia.

Beren eskubideak erabiltzean ez bazaie arreta behar bezala eman, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango dute Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008, Gasteiz. Dena den, lehen instantzian, erreklamazioa Donostiako Datuen Babeserako ordezkariari aurkeztu ahal izango diote. dbo@donostia.eus.

Ondorio horietarako, jasota utzi da dagokion eskaera aurkeztean eskatzaileak berariaz ematen duela baimena aurreko paragrafoetan adierazitakoaren ondorioz sortutako datu komunikazioetarako edo lagapenetarako.

21. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNETIK SALBUESTEA

1.- Eskaera onartzeak berekin dakar interesdunek oinarriak oso-osorik onartzea.

2.- Onuraduna da laguntzaren xede den jarduera egitearen aurreko jarduketetatik edo ondorengoetatik sortutako kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostiako Udalak eta Donostia Sustapenak ez dute kontzeptu horien inolako erantzukizunik izango.

Donostian, sinaduraren datan.